

IRAGARKIA, 520/04 Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoan (prozedura laburtua) interesa izan dezaketen hirugarrenentzako deia egiteko dena. 2385

IRAGARKIA, 486/04 Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoan (prozedura laburtua) interesa izan dezaketen hirugarrenentzako deia egiteko dena. 2385

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

IRAGARKIA, behean aipatzen diren zigor-espedienteetan Arrantza zuzendariak emandako ebazpenak jakinarazteko. Espediente horiek Itsas-arrantzari buruzko martxoaren 13ko 6/1998 Legea ustez urratzeagatik hasi dira. 2386

IRAGARKIA, behean aipaturiko zigor-espedienteari buruz Arrantza zuzendariak emandako ebazpena jakinarazteko. Espediente hori Itsas-arrantzari buruzko martxoaren 13ko 6/1998 Legea ustez urratzeagatik hasi da. 2387

Xedapen Orokorrak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

717

AGINDUA, 2004ko azaroaren 4koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, petrolio-gas likidotuak (PGL) andel finkoetan biltegitratzen dituzten instalazioetan egin beharreko aldizkako ikuskapenak eta mantentze-lanak arautzen dituen.

Urriaren 7ko 34/1998 Legea hidrokarburoen sektoreari buruzkoa da, eta III. tituluaren III. kapituluaren arautzen dira, besteak beste, gas-erregaien horniduran parte hartzen duten agenteen eskubideak eta betebeharrak: besteak beste, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintza teknikoak eta segurtasunaren alorrekoak bete behar dituzte instalazioek.

Bestalde, 1986ko urtarrilaren 29ko Aginduak petrolio-gas likidotuak (PGL) andel finkoetan biltegitratzen dituzten instalazioei buruzko erregelamendua onartu zuen, eta aldizkako ikuskapen ofizialak egiteko betebeharra ezarri, horrela ikusiko baita instalazioak eta segurtasun-baldintzak erregelamenduaren arabera diren.

Ordutik hona hamaika aldizkako ikuskapen egin dira eta 1993ko Ikuskapenen Gidaliburua aplikatu da, eta horri esker berrikusi ahal izan dira kontuan hartu beharreko irizpideak, ikuskapenetan erabili beharreko metodologia eta detektatu daitezkeen akatsen identifikazioa, bai eta horien ebaluazioa ere. Horretarako, lanki-

ANUNCIO. Emplazamiento a terceros interesados en el recurso contencioso administrativo (procedimiento abreviado) n.º 520/04. 2385

ANUNCIO. Emplazamiento a terceros interesados en el recurso contencioso administrativo (procedimiento abreviado) n.º 486/04. 2385

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

ANUNCIO por el que se notifican las Resoluciones del Director de Pesca, de los expedientes sancionadores abajo indicados, en relación a infracciones a la Ley 6/1998, de 13 de marzo, de pesca marítima. 2386

ANUNCIO por el que se notifica la Resolución del Director de Pesca, del expediente sancionador abajo indicado, en relación a infracción a la Ley 6/1998, de 13 de marzo, de pesca marítima. 2387

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

717

ORDEN de 4 de noviembre de 2004, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regulan las inspecciones periódicas y el mantenimiento de los almacenamientos de Gases Licuados de Petróleo (GLP) en depósitos fijos.

La ley 34/1998, de 7 de octubre, del sector de hidrocarburos, en el capítulo III de su Título III, entre otras cuestiones, regula aspectos relativos a los derechos y obligaciones de los diferentes agentes que intervienen en el suministro de combustibles gaseosos, siendo una de ellas el cumplimiento de las instalaciones de las condiciones técnicas y de seguridad que se establezcan reglamentariamente.

Por otra parte, la Orden de 29 de enero de 1986, por la que se aprueba el Reglamento sobre instalaciones de almacenamiento de Gases Licuados del Petróleo (GLP) con depósitos fijos, indica la obligación de realizar inspecciones periódicas oficiales, con el fin de comprobar la idoneidad reglamentaria de las instalaciones y sus condiciones de seguridad.

La experiencia acumulada en la realización de las inspecciones periódicas y en la aplicación del Manual de Inspecciones de 1993 ha servido para revisar los criterios a tener en cuenta, la metodología a seguir en las inspecciones y la identificación de las deficiencias que pueden detectarse, así como su evaluación. Para ello se ha

de izan ditugu petrolio-gas likidotuen hornidura egiten duten enpresak eta kontrol-erakunde baimenduak, alor honetan esperientzia dutenak. Horregatik, arau bat emateko moduan gaude, non zehatz-mehatz jasoko baita instalazio horietan aldizkako ikuskapenak egiteko zein prozedurari jarraitu behar zaion.

Bestalde, instalazioetan mantentze-lanak egiteari begira, beharrezkoa da erregelamendu bidez zehaztutakoak baino irizpide zehatzagoak ezartzea eta instalazioen mantentze-lanen liburuan jaso beharreko gutxieneako zehaztea. Nabarmendu beharra dago, gainera, oso garrantzitsua dela mantentze-lanak behar bezala egitea petrolio-gas likidotuak biltegitratzen diren instalazioetan. Izan ere, instalazioak egokiak direla bermatzeko, baldin eta instalazio batek erregelamendu bidez jarritako baldintzak betetzen ez baditu, enpresa hornitzaileak ez du andela gasez hornitzerik izango.

Hori dela eta, orain ere instalazioen segurtasuna hobetzen ahaleginduz, beharrezkoa da aldizkako ikuskapenen sistema berrikustea eta instalazioen mantentze-lanekin haratago joatea. Helburu horiek lortu nahi dira, hain justu ere, arau honen bitartez.

Onorioz, Industriaren Kalitate eta Segurtasunari buruzko azaroaren 25eko 275/1986 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoan agindutakoarekin bat etorriz, hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. *artikulua*.— Helburua.

Agindu honek helburu hauek ditu:

1.— Prozedura bat arautuko da petrolio-gas likidotuak (PGL) andel finkoetan biltegitratzen dituzten instalazioetan aldizkako ikuskapenak egiteko edo gauzatzeko, erregelamendu bidez jarritako zehaztapenen arabera.

2.— Instalazioen mantentze-lanetan zer berrikusikoden ezarriko da, bai eta mantentze-lanen liburuan gutxienez zer jaso beharko den ere.

2. *artikulua*.— Aplikazio-eremua.

Euskal Autonomia Erkidegoan petrolio-gas likidotuak (PGL) andel finkoetan biltegitratzen dituzten instalazio guztietan bete beharko dira arau honetan jasotzen diren xedapenak.

II. KAPITULUA ALDIZKAKO IKUSKAPENAK

3. *artikulua*.— Aldizkako ikuskapenetan egin beharrekoak.

Aldizkako ikuskapenetan egiaztatu egin beharko dira biltegitratzea eta banaketaren kanalizazioa: gas-hornidura soltean egiten denean, instalazio hartzailearen hasieraraino, eta hornidura kanalizazioz egiten denean,

contado con la colaboración de las empresas suministradoras de GLP y con los Organismos de control autorizados con experiencia en este campo. Es por ello por lo que se está en condiciones de dictar una norma que recoja con detalle el procedimiento a seguir para realizar las inspecciones periódicas de este tipo de instalaciones.

Por otra parte, en relación con el mantenimiento de las instalaciones, se hace necesario establecer criterios más concretos que los definidos reglamentariamente y determinar el contenido mínimo del Libro de mantenimiento de las instalaciones. Conviene destacar, además, a efectos de resaltar la importancia del buen mantenimiento de las instalaciones de almacenamiento de Gases Licuados del Petróleo, que para garantizar la idoneidad de las instalaciones se imposibilita que la empresa suministradora pueda realizar el suministro regular de gas al depósito en aquellos casos en los que no se cumplan las condiciones reglamentarias.

Así pues, para continuar con el esfuerzo de mejora de la seguridad de las instalaciones, se hace necesario revisar el sistema de inspecciones periódicas y avanzar en el mantenimiento de las instalaciones, objetivos estos que a los que pretende hacer frente la presente norma.

En su virtud, de acuerdo con lo establecido en la Disposición Final Primera del Decreto 275/1986, de 25 de noviembre, sobre Calidad y Seguridad Industrial,

DISPONGO:

CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.— Objeto.

La presente Orden tiene por objeto:

1.— Regular el procedimiento para la realización o ejecución, en los términos reglamentariamente previstos, de la inspección periódica de los almacenamientos de Gases Licuados del Petróleo (GLP) en depósitos fijos.

2.— Establecer el alcance de las revisiones de mantenimiento y el contenido mínimo del Libro de mantenimiento de las instalaciones.

Artículo 2.— Ámbito de aplicación.

Las disposiciones contenidas en esta norma, serán de aplicación a todos los almacenamientos de Gases Licuados del Petróleo (GLP) en depósitos fijos instalados en el territorio de esta Comunidad Autónoma.

CAPÍTULO II INSPECCIONES PERIÓDICAS

Artículo 3.— Alcance de la inspección periódica.

La realización de las inspecciones periódicas contemplará la comprobación del almacenamiento y la canalización de distribución hasta el inicio de la instalación receptora en caso de suministro a granel o de la red de

gas banatzeko sarearen hasieraraino. Honako hauek egiaztatu beharko dira:

- 1.– Dokumentazioa.
- 2.– Kokalekua.
- 3.– Andelak eta horien osagarriak.
- 4.– Kanalizazioak.
- 5.– Korrosioaren aurkako babesa.
- 6.– Suteen aurkako babes-tresneria.
- 7.– Beste elementu batzuk.

4. artikulua.– Ikuskapenen maiztasuna.

Lau (4) urtean behin ikuskatu beharko dira instalazioak; kanalizazioz banatzeko diren biltze-giratzak, berriz, bi (2) urtean behin.

Aurrekoa gorabehera, 1986ko urtarrilaren 29ko Agindurearen lehenengo xedapen gehigarrian agindutakoarekin bat etorritik, agindu hori indarrean sartu baino lehenagoko instalazioak, baldin eta aipatutako erregelamenduaren aginduei atxiki gabekoak badira, honek ikuskatu beharko dira: urtero, industria-establezimenduak edo jendeari irekitako lekuak hornitzekoak badira; etxebizitzak hornitzekoak badira, berriz, bi urtean behin (petrolio-gas likidotuak andel finkoetan biltze-giratzak dituzten instalazioen erregelamendua onartu zuen aipatutako aginduek).

5. artikulua.– Akatsak ebaluatzea.

Aldizkako ikuskapenetan detektatzen diren akatsak sailkatzeko, nolako arriskua duten hartuko da kontuan. Hau izango da irizpidea:

– Oso akats larria (OAL): pertsonen edo ondasunen kalte egiteko arrisku larria edo berehalakoa dakarren akatsa.

– Akats larria (AL): segurtasun-baldintzei dagokien akatsa, nahiko larria, nahiz eta istripuren bat gertatzeko berehalakoa arriskurik ez ekarri.

Akats larri bat detektatzen bada, andela gasez hornitzerik ez da izango harik eta akatsa zuzentzen den arte.

– Akats arina (AA): aurreko kategorietan egon gabe, erregelamendu bidez emandako xedapenen bat edo segurtasun alorrekoen bat betetzen ez duena.

6. artikulua.– Akatsak zuzentzeko epeak.

Akatsak ahalik eta azkarren zuzendu behar dira.

Akats arinen bat egonez gero, akatsa zuzendu dela sei hileko epean egiaztatu beharko da, gehienez ere; akats larriak, berriz, hil biko epean, gehienez ere.

Ikuskapen baten oso akats larria detektatzen bada, berehala zuzendu beharko da.

7. artikulua.– Aldizkako ikuskapenen aurreko jarduketak.

- 1.– Erabiltzaileei jakinaraztea.

Enpresa instalatzaileak-mantentzaileak, probak egin baino lehen, ziurtatu egin beharko du erabiltzaileei ja-

istribución de gas en caso de suministro por canalización, comprobando:

- 1.– Documentación.
- 2.– Emplazamiento.
- 3.– Depósitos y sus accesorios.
- 4.– Canalizaciones.
- 5.– Protección contra la corrosión.
- 6.– Equipo de defensa contra incendios.
- 7.– Otros elementos.

Artículo 4.– Periodicidad de las inspecciones.

Las instalaciones deberán inspeccionarse con una periodicidad de 4 años, salvo en el caso de almacenamientos para distribución por canalización, que será de 2 años.

No obstante lo anterior, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Adicional Primera de la Orden de 29 de enero de 1986 que aprueba el Reglamento sobre instalaciones de almacenamiento de Gases Licuados del Petróleo en depósitos fijos, para las instalaciones existentes con antelación a la entrada en vigor de dicha Orden, y que no se hayan acogido a las prescripciones del citado Reglamento, el plazo de inspección será anual si pertenecen a establecimientos industriales ó de pública concurrencia, siendo cada dos años si prestan servicio a viviendas.

Artículo 5.– Evaluación de las deficiencias.

Las deficiencias que se detecten en las inspecciones periódicas se calificarán atendiendo a su peligrosidad, con el siguiente criterio:

– Deficiencia Muy Grave (DMG): aquella que implique un riesgo grave o inminente de daños a las personas o a los bienes.

– Deficiencia Grave (DG): aquella que no entrañando un riesgo inminente de accidente suponga una falta importante de las condiciones de seguridad.

La detección de una deficiencia grave conlleva la imposibilidad de proceder a realizar suministro de gas al depósito hasta su subsanación.

– Deficiencia Leve (DL): aquella que no siendo calificada en las anteriores categorías incumpla alguna disposición reglamentaria o de seguridad.

Artículo 6.– Plazos de corrección de las deficiencias.

Las deficiencias detectadas deberán corregirse a la mayor brevedad posible.

En caso de existir deficiencias leves deberá acreditarse su subsanación en el plazo máximo de seis meses y el de las deficiencias graves como máximo de dos meses.

Si en una inspección se detectan deficiencias muy graves, deberán subsanarse de forma inmediata.

Artículo 7.– Actuaciones previas a la inspección periódica.

- 1.– Notificación a usuarios.

La Empresa Instaladora-Mantenedora, antes de proceder a la realización de las pruebas, deberá cerciorarse

kinarazi zaiela konponketak egiten diren bitartean gasa eten egingo dela.

Aurrekoa gorabehera, egiaztapenak eginagatik erabiltzaileek gas-hornidura izaten jarraitzen badute, ez da jakinarazpenik egin beharko.

2.- Langileak eta ekipamendua.

Kontrol-erakunde baimendu batek egingo du aldizkako ikuskapena, EG IV enpresa-instalatzailer baimendu batek lagunduta. Erakunde horrek behar dituen bitarteko guztiak izango ditu instalazioan egin beharreko manipulazioak egin ahal izateko.

Ikuskatzaileak baliabide tekniko hauek eduki beharko ditu, gutxienez:

- Lurreko erresistentzia-neurgailua.
- Voltmetroa, beharrezko doitasuna duena.
- CU-SO₄Cu erreferentziako elektrodoa.
- Manometro kalibratua.
- Neurketa-zinta.
- Xaboi-uraren disoluzioa edo gas-detektagailua.
- Zigilatzeoko pintzak edo zigilu egokiak.

8. artikulua.- Aldizkako ikuskapena.

1.- Gai orokorrak.

Segurtasun-arau guztiak hartu beharko dira gas-instalazioetan ikuskapenak eta probak egiterakoan; ez da manipulazio faltsurik egingo eta kontu handiz egingo dira eragiketa guztiak.

2.- Jarduteko modua.

I. eranskinean azaltzen da ikuskapenetan zer egiaztatu behar den eta zer egin behar den.

3.- Akatsak.

III. eranskinean aipatzen dira detektatu behar diren akatsak eta horien kalifikazioa.

Oso akats larriak detektatzen badira, segurtasun-neurri bereziak hartu beharko dira berehala, istripurik gerta ez dadin; behar izanez gero, andela husteko eskatu ahal izango da. Halaber, akatsak larriak izanez gero, beste neurri batzuk hartzea aztertuko beharko da arriskua txikitzeko.

Gas-ihesen bat dagoela egiaztatzen bada, baloratu edo neurtu egin beharko da akatsa larritzat edo oso larritzat sailkatzeko.

Detektatzen diren akatsek izan beharko dute instalazioaren unean aplikatzekoak diren erregelamenduetan jasotako betekizun teknikoak buruzkoak eta egindako segurtasun-egokitzapenei buruzkoak.

Erregelamendu bidez eskatutakoaz gain instalazioan segurtasun-neurri osagarri batzuk jarri badira, eraginkorrak direla egiaztatu beharko da eta bestelako arriskurik ote duten neurtu. Andelaren inguruan babesen bat edo itxituraren bat jartzea erabaki bada, honako hauek egiaztatu beharko dira: andelaren ingurua mantentze-lanak egiteko egokia dela, atea eta sarraila egokiak direla edo erabilitako materialek su-

que los usuarios hayan sido avisados de que se procederá a la suspensión temporal de gas durante el tiempo de duración de aquéllas.

No obstante lo anterior, cuando la realización de las comprobaciones no suponga una falta de suministro a los usuarios, no será necesario la notificación.

2.- Personal y equipamiento.

La inspección periódica se realizará por parte del Organismo de control autorizado con la colaboración de una Empresa instaladora autorizada EG IV que dispondrá de todos los medios necesarios para realizar las manipulaciones necesarias en la instalación.

El inspector deberá disponer de, al menos, los siguientes medios técnicos:

- Medidor de resistencias a tierra.
- Voltímetro de la precisión adecuada.
- Electrodo de referencia CU-SO₄Cu.
- Manómetro calibrado.
- Cinta métrica.
- Solución de agua jabonosa o detector de gas.
- Pinzas de precintar o precintos apropiados.

Artículo 8.- Inspección periódica.

1.- Consideraciones generales.

Se deberán adoptar todas las normas de seguridad existentes en relación a la inspección y pruebas en instalaciones de gas, evitando realizar falsas manipulaciones y actuando con la máxima precaución a la hora de realizar las distintas operaciones.

2.- Método operativo.

La inspección de la instalación contemplará las comprobaciones y el alcance que se indica en el Anexo I.

3.- Deficiencias.

En el Anexo III se indican las deficiencias a detectar y su calificación.

La detección de deficiencias muy graves obliga a la adopción inmediata de medidas de seguridad extraordinarias para evitar que pueda producirse un accidente y, en su caso, podrá requerir el vaciado del depósito. De igual forma, en caso de deficiencias graves, deberá valorarse la adopción de medidas que disminuyan el riesgo.

En caso de comprobar la existencia de una fuga de gas, deberá valorarse o cuantificarse para calificar la deficiencia como grave o muy grave.

Las deficiencias que se detecten estarán relacionadas con los requisitos técnicos de los reglamentos aplicables en el momento de la instalación y con las adaptaciones de seguridad que se hayan realizado.

Cuando en una instalación se hayan dispuesto medidas de seguridad suplementarias a las exigidas reglamentariamente, deberá comprobarse su eficacia, debiendo valorarse si presentan algún riesgo suplementario. En el caso concreto de que se haya dispuesto una protección o cerramiento alrededor del depósito, deberá comprobarse que el espacio alrededor del depósito sea adecuado para realizar las actuaciones de mantenimiento, que la

teak eragiteko arriskurik ez dutela. Horrelakoetan, «Beste batzuk» atalari dagokion zenbakia jarriko zaio akatsari.

Ikuskapenak egiteko eta mantentze-berrikuspenak egiteko epeei dagokienez, akastzat joko da jarritako epea iragatea. Epea amaitzen denetik gehienez ere hilabete igarotzen bada, arintzat joko da akatsa.

Beharrezko irizten zaionean, ikuskapeneko aktaren «oharrak» atalean behar den guztia argituko da akatsak ahalik eta ondoen zehazteko.

III. eranskinetako akatsei dagokienez, «Beste batzuk» atalari dagozkion erreferentzia-zenbakiak erabili behar izanez gero, akatsaren deskribapenari dagokion testua adierazi beharko da ikuskapenaren aktan. 5. idatz-zatian aipatutakoaren arabera ebaluatuko da akatsa.

9. artikulua.— Aldizkako ikuskapenen osteko jarduketak.

1.— Baimendutako kontrol-erakundeak (BKE).

Ikuskapena egin ondoren, baimendutako kontrol-erakundeak aldizkako ikuskapenaren akta egingo du, II. eranskinean jasotzen den eredia erabilita. Honako hauek jaso beharko dira aktan: instalazioaren identifikazioa eta ezaugarriak; detektatutako akatsak, halakorik balego; horien ebaluazioa; eta akatsak zuzendu direla egiaztatzeko epea.

Ikuskapenean oso akats larri bat detektatzen bada, segurtasun-neurri bereziak hartzeko eska daiteke, 8.3 atalean adierazitakoari jarraituz. Baimendutako kontrol-erakundeak jakinarazpen-idazki bat igorriko die alderdi interesatuei (erabiltzailea, enpresa hornitzailea, instalatzaile-mantentzailea eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-bulegoa).

Ikuskapen-akta titularrari eta enpresa instalatzaile-mantentzaileari ikuskapena egiten den unean emango zaie, ahal izanez gero; enpresa hornitzaileari eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-bulegoari, berriz, hil biko (2) epean, gehienez ere. Aktaren osagarri, III. eranskinean aipatutako akatsen zerrenda bat emango zaio titularrari.

Eguneratu egin beharko da mantentze-lanen liburua edo erregistro-sistema, egindako jarduketei buruzko oharra jarritz.

2.— Enpresa hornitzailea.

Akats larriak edo oso larriak daudela jakiten badu, eragotzi egin beharko du instalazioa hornitzea harik eta akatsak zuzenduta daudela egiaztatzen duten agiriak jasotzen dituen arte.

Egindako ikuskapena eta detektatutako akatsak erregistratu beharko ditu, bai eta horien zuzenketari dagokiona ere.

puerta y su cerradura sean adecuadas o que los materiales utilizados no aporten un riesgo de incendio. En estos casos, la deficiencia se identificará con la referencia numérica correspondiente al apartado «Otros».

En relación con los plazos de realización de inspecciones y revisiones de mantenimiento se considerará como deficiencia el haber superado la fecha correspondiente. Se considerará como deficiencia leve si no se ha superado el plazo de 1 mes desde su vencimiento.

Cuando se considere necesario, en el apartado de observaciones del acta de inspección se indicarán las aclaraciones necesarias para una mejor definición de las deficiencias.

En caso de tener que utilizar las referencias numéricas que se identifican como «Otros» en la relación de deficiencias del Anexo III, en el acta de inspección se indicará el texto que corresponda a la descripción de la deficiencia. La evaluación de la deficiencia se realizará atendiendo a lo indicado en el apartado 5.

Artículo 9.— Actuaciones posteriores a la inspección periódica.

1.— Organismos de control autorizados (OCA).

Una vez realizada la inspección, se emitirá por parte del OCA un acta de inspección periódica, según modelo que se adjunta como Anexo II. En el acta se indicarán, además de la identificación y características de la instalación, las deficiencias que en su caso se hayan detectado y su evaluación, así como el plazo de acreditación de la subsanación las mismas.

La detección durante la inspección de una deficiencia muy grave puede requerir la adopción de medidas de seguridad extraordinarias, según lo indicado en el anterior apartado 8.3. Se emitirá por el OCA a las partes interesadas (Usuario, Empresa Suministradora, Instalador-Mantenedor y Oficina Territorial del Departamento de Industria, Comercio y Turismo), un escrito de notificación.

El acta de inspección se entregará, a ser posible en el momento de la inspección, al titular y a la Empresa Instaladora-Mantenedora, debiendo remitirse a la Empresa Suministradora y a la correspondiente Oficina Territorial del Departamento de Industria, Comercio y Turismo en un plazo no superior a 2 meses. Como complemento del acta, al titular se le acompañará un listado con la relación de las deficiencias indicadas en el Anexo III.

Deberá actualizarse el Libro de mantenimiento o sistema de registro correspondiente, anotando la actuación realizada.

2.— Empresa suministradora.

En caso de tener conocimiento de la existencia de deficiencias graves o muy graves, deberá proceder a impedir el suministro a la instalación hasta que no haya recibido los correspondientes certificados de corrección.

Deberá registrar la inspección realizada y las deficiencias detectadas, así como la corrección de las mismas.

3.- EG-IV enpresa instalatzailea.

Akatsak zuzendu ostean, ikuskapenaren aktan jarritako epea baino lehen, akatsak zuzenduta daudela egiaztatzen duen agiria igorri beharko die titularrari, enpresa hornitzaileari eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-bulegoari. IV. eranskinean dago egiaztatzea egiteko eredia.

10. artikulua.- Beste proba batzuk.

Agindu honetan aipatutako aldizkako ikuskapenez gain, instalazioaren aparatuek eta tresnek beren erregelamendu propioen arabera dagozkien probak gainditu beharko dituzte (presio-aparatuen erregelamendua, su-teen aurkako instalazioen erregelamendua, behe-tensiorako erregelamendu elektroteknikoa ...).

Presio-aparatu izanik, andelak ez du gasik eduki behar andelaren erresistentzia-proba hidrostatikoa egiterakoan. Hori kontuan hartu beharrekoa izango da, beraz, andelak betetzen direnean, proba aurreikusitako gehienezko epeak baino lehen egin ahal izateko.

III. KAPITULUA INSTALAZIOEN MANTENTZE-LANAK

11. artikulua.- Instalazioen mantentze-lanak.

Erregelamenduaren 10. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, agindu hau aplikatuko zaien instalazio guztiek mantentze-lanen kontratu bat eduki beharko dute gasaren enpresa instalatzaile edo mantentzaile batekin. EG-IV kategoria izan beharko du enpresa horrek.

Enpresa hornitzaileek euren instalazioen mantentze-lanak egin ditzakete.

Instalazioaren mantentze-lanetan bermatu egin beharko da instalazioa behar den moduan dabilela eta behar diren segurtasun-neurriak dituela. Horretarako, betebeharrekoak izango dira petrolio-gas likidotuak andel finkoetan biltegitratzen dituzten instalazioei buruzko erregelamenduan jasotako xedapenak.

Aurreko paragrafoan aipatutako helburuak lortzeko behar den maiztasunaz egin beharko dira mantentze-lanak; dena den, instalazioa urtean behin bisitatu beharko da, gutxienez.

12. artikulua.- Enpresa instalatzaile-mantentzailearen betebeharrak.

Enpresa instalatzaile-mantentzaileak betebeharrak izango ditu:

a) Instalazioaren mantentze-lanak egin beharko ditu, honako hauek bermatzeko: instalazioa behar den moduan dabilela eta behar diren segurtasun-neurriak dituela; horretarako, betebeharrekoak izango dira petrolio-gas likidotuak andel finkoetan biltegitratzen dituzten instalazioei buruzko erregelamenduan jasotako xedapenak.

b) Titularrari edo erabiltzaileari, idatziz, informazioa eman beharko dio mantentze-lanei buruzko jarduketara

3.- Empresa instaladora EG-IV.

Una vez subsanadas las deficiencias, deberá remitir el Certificado de corrección de deficiencias al titular, a la Empresa Suministradora y a la Oficina Territorial del Departamento de Industria, Comercio y Turismo antes de transcurrir el plazo indicado en el acta de inspección. En el Anexo IV se indica el modelo del certificado.

Artículo 10.- Otras pruebas.

Además de las inspecciones periódicas indicadas en la presente Orden, los aparatos y equipos de la instalación deberán superar las pruebas que les correspondan en relación con sus reglamentaciones específicas (Reglamento de aparatos a presión, Reglamento de instalaciones de protección contra incendios, Reglamento electrotécnico para baja tensión...).

La realización de la prueba hidrostática de resistencia del depósito como aparato a presión requiere que éste no contenga gas, por lo que deberá tenerse en cuenta esta situación a la hora de realizar el llenado de los mismos para que pueda realizarse con anterioridad a los plazos máximos previstos.

CAPÍTULO III MANTENIMIENTO DE LAS INSTALACIONES

Artículo 11.- Mantenimiento de las instalaciones.

De acuerdo con lo previsto en el artículo 10 del Reglamento, todas las instalaciones incluidas en el ámbito de aplicación de ésta Orden deberán disponer de un contrato de mantenimiento con una empresa instaladora-mantenedora de gas de la categoría EG-IV.

Las empresas suministradoras podrán realizar el mantenimiento de las instalaciones de su propiedad.

El mantenimiento de la instalación deberá garantizar el correcto funcionamiento de la instalación y las adecuadas medidas de seguridad, cumpliendo las disposiciones del Reglamento sobre instalaciones de almacenamiento en depósitos fijos de GLP.

Las operaciones de mantenimiento deberán realizarse con la periodicidad adecuada para conseguir los fines indicados en el párrafo anterior y al menos deberá contemplar una visita anual a la instalación.

Artículo 12.- Obligaciones de la Empresa Instaladora-Mantenedora.

Serán obligaciones de las Empresas Instaladoras-Mantenedoras las siguientes:

a) Realizar el mantenimiento de la instalación para garantizar el correcto funcionamiento y las adecuadas medidas de seguridad, cumpliendo las disposiciones del Reglamento sobre instalaciones de almacenamiento en depósitos fijos de GLP.

b) Informar por escrito al titular y/o usuario de todas las actuaciones relacionadas con el mantenimiento,

guztien inguruan eta erregelamenduzko betebeharren inguruan.

c) Titularrari edota erabiltzaileari informazioa eman beharko dio, idatziz, instalazioaren segurtasunerako aholkuen gainean edo instalazioa seguru ibil dadin hartu beharreko neurrien inguruan.

d) Enpresa gas-hornitzaileari informazioa eman beharko dio, idatziz, instalazioan detektatutako akatsen inguruan eta akatsak zuzentzearen inguruan.

e) Industriako lurralde-bulegoari informazioa eman beharko dio erregelamenduaren arabera aldizkako ikuskapenak egiterakoan detektatutako akatsak zuzentzearen inguruan, eta, istripuren baten berri izanez gero, istripu horren inguruan.

f) Mantentzaileak zerbitzu bat izango du premialdi larriei erantzuteko, eta konpromisoa hartuko du abisua hartzen duen unetik ahalik eta lasterren egoteko larrialdia dagoen lekuan.

Gas-ihesak edo matxura handiak daudenean, eskura dituen baliabide guztiak jarriko ditu arriskua —egonez gero— ezabatzeko. Halaber, horren berri emango dio, berehala, bai enpresa gas-hornitzaileari —horrek erabakiko baitu arazoa behin betiko nola konpondu edo nola jardun— bai Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-bulegoari.

g) Mantentzaileak beharrezko diren giza-baliabideak eta materialak izango ditu beti, bai eta telefono bat ere, premialdiei erantzun ahal izateko.

h) Gutxienez, V. eranskinean aipatutako urteko egiaztapenak egin beharko ditu.

13. artikulua.— Enpresa gas-hornitzailearen betebeharrak.

Enpresa gas-hornitzaileak betebeharrak hauek ditu:

a) Erregelamendu bidez emandako xedapenak betetzen dituzten instalazioak gasez hornitu beharko ditu. Hori egiteko, egiaztatu egin beharko du instalazioek abian jartzeko dokumentazioa dutela eta mantentze-lanak eta aldizkako ikuskapenak egiten dituztela, bai biltze-giratzeari dagokionez bai instalazio hartzaileei dagokionez.

b) Behar diren segurtasun-neurriak hartuta egin beharko ditu hornidura-lanak.

c) Instalazioaren segurtasun-jarraibideen berri eman beharko dio, idatziz, titularrari edota erabiltzaileari.

d) Alderdien erantzukizunen berri eman beharko dio, idatziz, titularrari edota erabiltzaileari.

14. artikulua.— Titularraren betebeharrak.

Betebeharrak hauek izango ditu petrolio-gas likidotua biltze-giratzeko instalazioaren titularrak:

a) Mantentze-lanetarako kontratua eduki beharko du baimendutako enpresa batekin.

b) Instalazioari buruz behar diren agiriak eman beharko dizkio enpresa mantentzaileari eta mantentze-lanak egiten utzi.

así como de las obligaciones reglamentarias que le afecten.

c) Informar por escrito al titular y/o usuario de las recomendaciones de seguridad de la instalación o de las medidas a adoptar para un funcionamiento seguro.

d) Informar por escrito a la empresa suministradora de gas de las anomalías detectadas en la instalación, así como de la corrección de las deficiencias.

e) Informar a la Oficina Territorial de Industria de la subsanación de las deficiencias detectadas en las inspecciones periódicas reglamentarias, así como de los accidentes de los que tenga conocimiento.

f) El mantenedor dispondrá de un servicio para atender las urgencias graves, comprometiéndose a estar presente en el lugar del incidente a la mayor brevedad a contar desde la recepción del aviso.

Cuando se trate de fugas o grandes averías, pondrá todos los medios a su alcance para eliminar su posible peligrosidad, dando inmediata cuenta tanto a la empresa suministradora de gas, quien decidirá sobre la forma definitiva de reparación o actuación, como a la Oficina Territorial del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

g) El Mantenedor dispondrá en todo momento de los medios humanos y materiales necesarios, así como de un teléfono para atender las urgencias.

h) Realizar al menos las comprobaciones anuales indicadas en el Anexo V.

Artículo 13.— Obligaciones de la empresa suministradora de gas.

Corresponderá a las empresas suministradoras de gas:

a) Realizar los suministros de gas a las instalaciones que cumplan con las disposiciones reglamentarias. A estos efectos, deberán comprobar que las instalaciones dispongan de la documentación de puesta en servicio y que se realiza el mantenimiento y las correspondientes inspecciones periódicas, tanto del almacenamiento, como de las instalaciones receptoras.

b) Realizar los suministros con las debidas medidas de seguridad.

c) Informar por escrito al titular y/o al usuario de las instrucciones de seguridad de la instalación.

d) Informar por escrito al titular y/o usuario de las responsabilidades de las partes.

Artículo 14.— Obligaciones del titular.

Es obligación del titular de la instalación de almacenamiento de GLP:

a) Disponer de contrato de mantenimiento con empresa autorizada.

b) Facilitar a la empresa mantenedora la documentación necesaria de la instalación así como la realización del mantenimiento.

c) Segurtasun-jarraibideak bete beharko ditu, enpresa gas-hornitzailearenak nahiz enpresa mantentzailearenak; halaber, instalazioa mantentzeari buruzko gomendioak bete beharko ditu.

d) Instalazioan edo instalazioaren elementuetan egindako aldaketen berri eman beharko dio enpresa mantentzaileari.

e) Ikuskapenak erregelamendu bidez jarritako epeetan egin beharko ditu.

f) Gutxienez, agiri hauek eduki beharko ditu:

– Instalazioaren proiektua eta obra-zuzendaritza edo antzeko agiriak.

–Mantentze—lanen kontratua.

–Erregelamenduzko azken aldizkako ikuskapenari dagokion akta.

– Instalazioaren segurtasunari buruzko jarraibideak eta gomendioak.

g) Andela geldotu beharko du, andelak erabilgarri izateari uzten dionean.

15. artikulua.— Erabiltzailearen betebeharrak.

Betebehar hauek izango ditu petrolio-gas likidotuak biltegitartzeko andelen erabiltzaileak:

a) Mantentze-lanak egiten utzi beharko dio enpresa mantentzaileari.

b) Segurtasun-jarraibideak bete beharko ditu, enpresa gas-hornitzailearenak nahiz enpresa mantentzailearenak; halaber, instalazioaren mantentze-lanei buruzko gomendioak bete beharko ditu.

c) Instalazioak zertarako diren, horretarako erabili beharko ditu.

d) Instalazioan anomaliaren bat ikusiz gero —anomalía erreala edo ustezkoa izan—, horren berri eman beharko dio, ahalik eta azkarren, enpresa mantentzaileari.

e) Instalazioan edo instalazioaren elementuetan egindako aldaketen berri eman beharko dio enpresa mantentzaileari.

16. artikulua.— Mantentze-lanen liburua.

Instalazioek mantentze-lanei buruzko liburu bat eduki beharko dute, honako hauek jasotzeko: instalazioaren datu orokorrak, alderdien betebeharrak, mantentze—jarduerak, aldizkako ikuskapenak, akatsak zuzentzeko jarduerak, egindako aldaketak eta matxurak.

Kalitatea kudeatzeko sistema egiaztatuta duten enpresa instalatzaile edo hornitzaileek, liburu horren ordezkari dokumentazio baliokidea edukitzea eskatu ahal izango diote Industria, Merkataritza eta Turismo sailaren lurralde bulegoari.

VI. eranskinean zehazten da liburuak gutxienez zer jaso behar duen.

c) Cumplir con las instrucciones de seguridad de la empresa suministradora de gas y de la empresa mantenedora, así como las recomendaciones del mantenimiento de la instalación.

d) Poner en conocimiento de la empresa mantenedora las modificaciones de la instalación y sus elementos.

e) Realizar las inspecciones en los plazos reglamentarios.

f) Disponer de al menos la siguiente documentación:

– Proyecto y Dirección de obra de la instalación o documentación similar.

–Contrato de mantenimiento.

–Acta de la última inspección periódica reglamentaria.

– Instrucciones y recomendaciones de seguridad de la instalación.

g) Realizar el inertizado del depósito cuando deje de ser operativo.

Artículo 15.— Obligaciones del usuario.

Corresponderá al usuario del depósito de almacenamiento de GLP:

a) Facilitar a la empresa mantenedora la realización del mantenimiento.

b) Cumplir con las instrucciones de seguridad de la empresa suministradora de gas y de la empresa mantenedora, así como las recomendaciones del mantenimiento de la instalación.

c) Utilizar la instalación para los fines previstos.

d) Poner en conocimiento de la empresa mantenedora cualquier anomalía presunta o real que pueda observarse en la instalación, a la mayor brevedad posible.

e) Poner en conocimiento de la empresa mantenedora las modificaciones de la instalación y sus elementos.

Artículo 16.— Libro de mantenimiento.

Las instalaciones deberán disponer de un libro de mantenimiento en el que se indiquen los datos generales de la instalación, las obligaciones de las partes, las actuaciones de mantenimiento, las inspecciones periódicas, las actuaciones para subsanar las deficiencias, las modificaciones y las averías de la instalación.

Las empresas instaladoras o suministradoras que dispongan de la acreditación de su sistema de gestión de calidad, podrán solicitar, ante la Oficina Territorial del Departamento de Industria, Comercio y Turismo correspondiente, la sustitución de dicho libro por la documentación equivalente generada.

En el Anexo VI se indica el contenido mínimo del Libro.

AZKEN XEDAPENAK

Lebenengoa.— Industria eta Meategiak Administrazio zuzendariari ahalmena ematen zaio eranskinak aldatzeko eta agindu honetan ezarritakoa gauzatzeko eta aplikatzeko behar diren jarraibideak emateko.

Bigarrena.— Xedapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hogeita hamar (30) egunen buruan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko azaroaren 4a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGIRRE ZURUTUZA.

I. ERANSKINA

IKUSKAPENAK ZER HARTZEN DUEN

a) Dokumentazioa.

Instalazioaren dokumentazioa egiaztatuko da:

— Instalazioaren identifikazioa (andela eta elementuak).

—Mantentze-lanen liburua edo erregistro-sistema (egiaztatu egin beharko da dena beteta dagoela, mantentze-lanen datak, instalazioan egindako jarduketak edo aldaketak, matxurak, ...).

—Aurreko aldizkakako berrikuspenari buruzko akta (data eta akatsak).

—Azken birtinbratzei buruzko akta (datak: andela, lurruneztigailua, ...).

b) Kokalekua.

Alderdi hauek egiaztatuko dira:

— Sarbideak (horietara iristeko bidea erraza den eta zer segurtasun-baldintza duten).

—Andelak betetzeko segurtasuna (egoera, lur-hartuena, oztopoak, beste arrisku batzuk gertu egotea, ...)

—Segurtasun-distantziak.

—Aireztapena.

—Itxiturak eta kartelak.

Itxitura-mota, garaiera, atea, sarraila edo giltzarra-poa eta arriskuari buruzko kartelak.

Balbuletarako sarrerak finkoa behar du (maila ikus-teko moduan egon beharko da).

Lurpean dauden andelek, itxiturarik behar ez badute, arriskuari buruzko kartel bat eduki beharko dute; horrez gain, sistemaren batez inguratuta eduki beharko dute lurpean duten proiektzioa, ibilgailuak sartzerik izan ez dezaten. Kate jarraitu batez egiten bada, finkagailuak jarri beharko dira, gutxi gora-behera metro bakoitzeko, edo bestela, heskai bat jarri beharko da, behar besteko garaiera duena.

Itxiturarik behar ez duten instalazioetan, itxiera motaren bat baldin badago, metalezkoa beharko du izan, andelaren inguruan gutxienez 0,6 metrora. Erregelamen-

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Se faculta al Director de Administración de Industria y Minas para modificar los anexos y para dictar cuantas instrucciones sean necesarias para la ejecución y aplicación de lo previsto en la presente Orden.

Segunda.— La presente disposición entrará en vigor a los 30 días de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de noviembre de 2004.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGIRRE ZURUTUZA.

ANEXO I

ALCANCE DE LAS INSPECCIONES

a) Documentación.

Se comprobará la documentación existente de la instalación:

— Identificación de la instalación (depósito y elementos).

—Libro de mantenimiento o sistema de registro (comprobación de la completa cumplimentación, fechas del mantenimiento, actuaciones o modificaciones en la instalación, averías, ...).

—Acta de la anterior revisión periódica (fecha y deficiencias).

—Acta de los últimos retimbrados (fechas del depósito, vaporizador, ...).

b) Emplazamiento.

Se comprobarán los siguientes apartados:

— Accesos (accesibilidad y condiciones de seguridad).

—Seguridad para el llenado (situación, toma de tierra, obstáculos, proximidad de otros riesgos, ...)

—Distancias de seguridad.

—Ventilación.

—Cerramiento y carteles.

Tipo de cerramiento, altura, puerta, cerradura o candado y carteles de peligro.

El acceso a la valvulería debe ser fijo(deberá poder verse el nivel).

Los depósitos enterrados en los que no sea necesario el cerramiento deben disponer de un cartel de peligro y tener rodeada la proyección sobre el terreno con algún sistema que impida el acceso de vehículos. Si se realiza con una cadena continua, dispondrá de fijaciones cada 1 m aproximadamente o un seto de altura suficiente.

En instalaciones que no requieren cerramiento, si existe algún tipo de cierre, deberá ser metálico y con espacio mínimo de 0,6 m alrededor del depósito. Pue-

duan jarritako garaiera baino txikiagoa onartu ahalko da edo partziala izatea (alde guztietan jarri gabe), baina osoa bada eta sarraila baldin badu, erregelamenduan jarritakoaren modukoa beharko du izan. Heskaia jartzen bada, andelaren artean 1,25 m utzi beharko da, gutxienez.

–Barne-egoera (landaredia, instalaziokoak ez diren materialak, lurpekoetako buzo hodidunak, ...).

–Elementu osagarriak (eskularruak, linterna, mantak, alarmak, ...).

–Patioetako baldintza bereziak (gune askeak, hormarik baden, ...).

–Zabaltzetako baldintza bereziak (ur-hartuneak, hormarik baden, ...).

c) Andelak eta horien osagarriak.

Andela eta andelak funtzionatzeko behar dituen osagarriak egiaztatuko dira, egokiak diren eta nola funtzionatzen duten aztertuz:

– Identifikazio-plaka, eta presio-aparatu izanik beharrezkoa denean, lurralde-bulegoarena.

–Maila-adierazlea.

–Manometroak.

–Emari-mugatzailea (horren ordez ez da erreguladore bat jartzerik izango).

–Presio erreguladore eta/edo mugatzailea.

–Segurtasun-balbulak (ez da beharrezkoa disparen egiaztatzea).

–Balbulak eta kontrol-aparatuak.

–Lur-hartunea.

Lurgaineko andeletan lurrarekiko konexioa nola dagoen egiaztatuko da, bai eta erresistentziaren balioa ere; erresistentziak 20 ohm baino txikiagoa beharko du. Pika non instalatuta dagoen begiratuko da, eta zisternakamioira errez iristen den ere bai; halaber, lekualdatutako betetze-hartuneari dagokiona, behar izanez gero.

–Betetze-hartunea.

d) Kanalizazioak.

Dauden kanalizazio guztiak egiaztatu beharko dira: soltean hornitzen denean, instalazio hartzailearen hasieraraino, eta hornidura kanalizazioz egiten denean, gasa banatzeko sarearen hasieraraino:

– Kanalizazioa fase likidoan dagoenean (ihesak, ainguraketak, talken aurkako babesa, ...).

–Kanalizazioa gas-egoeran dagoenean (ihesak, ainguraketak, segurtasun-balbula, by-pass, horma-zeharkatzaileak, koloreak —4. erreferentziara arte—, ...).

–Kanalizazioen estankotasunari buruzko proba.

Instalazioa hornitzen ari dela egingo da proba (egiaztatzeke soltatu diren elementuak —soltatuz gero— muntatu ostean) eta funtzionamendu-presioaz, hama bost minututan, gutxienez.

Probak dirauen artean, hodian instalatutako elementuen estankotasuna egiaztatuko da (giltzak, erreguladoreak, eta abar) xaboi-ura edo gas-detektagailua erabiliz.

de admitirse con altura inferior a la reglamentaria o que sea parcial (no en todos los lados), pero si es completo y tiene cerradura deberá ser reglamentaria. Si se utiliza un seto, la distancia mínima al depósito será de 1,25 m.

–Estado interior (vegetación, materiales ajenos a la instalación, tubo buzo en enterrados, ...).

–Elementos auxiliares (guantes, linterna, mantas, alarma, ...).

–Condiciones especiales en patios (zona libre, existencia de muros, ...).

–Condiciones especiales en azoteas (toma de agua, existencia de muros, ...).

c) Depósitos y sus accesorios.

Se comprobará el depósito y los accesorios necesarios para el funcionamiento del mismo, verificando su idoneidad y funcionamiento:

– Placa de identificación y, cuando sea necesario como aparato a presión, de la Oficina Territorial.

–Indicador de nivel.

–Manómetros.

–Limitador de caudal (no sustituible por un regulador).

–Regulador y/o limitador de presión.

–Válvulas de seguridad (no se requiere comprobar el disparo).

–Valvulería y aparatos de control.

–Toma de tierra.

En los depósitos aéreos se comprobará el estado de su conexión a tierra y el valor de la resistencia, que deberá ser inferior a 20 ohmios. Se localizará dónde va instalada la pica y su accesibilidad al camión cisterna, así como, en su caso, la correspondiente a la de la boca de carga desplazada.

–Boca de carga.

d) Canalizaciones.

Se comprobarán las canalizaciones existentes hasta el inicio de la instalación receptora en caso de suministro a granel o de la red de distribución de gas en caso de suministro por canalización:

– Canalización en fase líquida (fugas, anclajes, protección contra impactos, ...).

–Canalización en fase gaseosa (fugas, anclajes, válvula de seguridad, by-pass, pasamuros, colores (hasta la referencia 4), ...).

–Prueba de estanquidad de las canalizaciones.

La prueba se realizará con la instalación en condiciones de suministro (después de haber realizado el montaje de los elementos que hayan podido soltarse para su comprobación) y a la presión de funcionamiento, durante al menos quince minutos.

Durante el tiempo de prueba, se comprobará la estanquidad de los distintos elementos instalados en la tubería (llaves, reguladores, etc.) por medio de agua jabonosa o detector de gas.

–Balbulak eta osagarriak.

e) Korrosioaren aurkako babesak.

Korrosioaren aurkako babesak nola dagoen egiaztatuko da andeleak eta kanalizazioetan:

– Lurgaineko andeletan (pintura, oxidaziorik bada goen, ...).

–Babes katodikoak duten lurpeko andeletan (anodoak, korronte indusitua, juntura dielektrikoa, ...)

Lurpeko andeletan, erregelamenduaren arabera babes katodikoak behar baldin badute, babes hori nola dagoen eta eraginkorra den egiaztatuko da. Anodoak edukiz gero, enpresa mantentzaileak lortutako neurketen irakurketak egiaztatuko dira, eta babes katodikoaren balioa neurtuko da Cu -SO₄Cu erreferentzia duen elektrodoren bidez; hori voltmetro bati lotuta borna komunean eta beste borna (+) andeleak konektatuta dagoela, balio minimo hau atera beharko da: -850 mV.

Egindako neurketa negatiboa baldin bada eta aipatutako baliora iristen ez bada, hiru hileko epea eman go da zuzentzeko.

–Babes osagarriaz lurperatutako andeletan:

Andelaren isolamendu-baldintzak betetzen diren egiaztatuko da, fabrikatzaileak egindako oharren arabera (hutsa, ...). Hiru hileko epea emango da konpondu dela egiaztatzeko.

–Lurgainetik doazen kanalizazioak.

–Lurpetik doazen kanalizazioak.

f) Suteen aurkako babes-tresneria.

Suteen aurkako babes-tresneria dagoen eta, egonez gero, nola dagoen egiaztatuko da:

– Itzalgailuak (itzalgaia, edukiera, iraungipena, berrikuspenak, kokalekua, erabiltzeko gertu egotea, ...). Instalazioan ikusteko moduan ez baldin badaude, kartel bat jarri beharko da non dauden adierazteko.

–Ur-instalazioa (presioa, emaria, egoera, ...).

g) Beste elementu batzuk.

Elementu hauek badauden eta, egonez gero, nola dauden egiaztatuko da:

– Lekualdatutako betetze-hartunea.

–Lurruneztargailua (egokitasuna, egoera, distantziak, ihesak, ...).

–Ontziz aldatzeko tresneria (eroapena, gainpresioen aurkako babesak, itzulera eragotzen duen balbula, azkar ixteko balbula, ponpak eta konpresoreak, ...).

–Instalazio elektrikoa (erregelamenduaren arabera) betekizunak, tresneria eskas argiztatuta egotea, estazioako argiteria, ...).

–Valvulería y accesorios.

e) Protección contra la corrosión.

Se comprobará el estado de la protección contra la corrosión del depósito y las canalizaciones:

– En depósitos aéreos (pintura, existencia de oxidación, ...).

–En depósitos enterrados con protección catódica (ánodos, corriente impresa, junta dieléctrica, ...)

En los depósitos enterrados que reglamentariamente deban disponer de protección catódica, se comprobará su estado y eficacia. En caso de disponer de ánodos se comprobarán las lecturas de las medidas obtenidas por la empresa que realiza el mantenimiento y se medirá el valor de protección catódica por medio del electrodo de referencia Cu -SO₄Cu que conectado a un voltímetro en su borna común y teniendo la otra borna (+) conectada en el depósito deberá obtenerse un valor mínimo de -850 mV.

Si la medición realizada resultase ser de valor negativo, sin alcanzar el valor indicado, se dará un plazo de tres meses para acreditar su subsanación.

–En depósitos enterrados con protección adicional:

Se comprobará el mantenimiento de las condiciones del aislamiento del depósito, según las indicaciones del fabricante (vacío, ...). Se dará un plazo de tres meses para acreditar su subsanación.

–Canalizaciones aéreas.

–Canalizaciones enterradas.

f) Equipo de defensa contra incendios.

Se comprobará la existencia y condiciones de los equipos de defensa contra incendios:

– Extintores (materia extintora, capacidad, caducidad, revisiones, localización, disponibilidad para utilización, ...). Si no están visibles en la instalación, deberá existir un cartel con la indicación de su localización.

–Instalación de agua (presión, caudal, estado, ...).

g) Otros elementos.

Se comprobará la existencia y condiciones de los siguientes elementos:

– Boca de carga desplazada.

–Vaporizador (idoneidad, situación, distancias, fugas, ...).

–Equipo de trasvase (conducción, protección contra sobrepresiones, válvula antirretorno, válvula de cierre rápido, bombas y compresores, ...).

–Instalación eléctrica (requisitos reglamentarios, iluminación de equipos insuficiente, alumbrado de la estación, ...).

II. ERANSKINA

PETROLIO-GAS LIKIDOTUAK ANDEL FINKOETAN BILTEGIRATZEN DITUZTEN INSTALAZIOAK ALDIZKA IKUSKATZEKO AKTA

ESPEDIENTE ZK.

